BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3295

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketan kontratatzeko laguntzen deialdia argitaratzen da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2014ko uztailaren 10eko batzarrean hartutako Erabakiaren bidez, gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketan kontratatzeko laguntzen deialdia egitea onartu du. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretu bidez onartutako Lanbideko Estatutuen 10.2 artikuluko p) idatzi-zatian xedatutakoaren arabera, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio hori argitaratzea.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketan kontratatzeko laguntzen deialdia argitara ematea. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu zen, 2014ko uztailaren 10eko batzarrean, eta ebazpen honi erantsi zaio.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak diru-laguntzen deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 16a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESEN KANPOKO LANTOKIETAN PRAKTIKETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

Egungo krisialdi ekonomikoak berekin ekarri du Euskadiko biztanleria aktibo gazteenaren artean langabezia-tasa handia izatea, edozein dela ere haien prestakuntza profesionalaren maila. Egoera horretan, gazteek, prestakuntza akademiko edo profesionala egiaztatuta izanda ere, beren titulazioarekin lotutako esperientziarik ez badute lanean, zailtasun handiak dituzte laneratzeko.

Era berean, enpresen gizarte-erantzukizunak gero eta garrantzi handiagoa du enpresen plan estrategikoetan, ez bakarrik lehiakortasuna indartzeko tresna den aldetik, baizik eta enpresen gobernu korporatibo ona sustatzeko tresna den aldetik ere bai, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-iraunkortasuna sustatzeko tresna bihurtzen baita horrela.

Horregatik, premiazkoa da gazte tituludunen enplegu-aukerak areagotzeko eta laneratzen, okupazioa lortzen eta ingurune erreal batean lan-praktika eskuratzen laguntzeko neurriak hartzea. Eta horretarako, kontuan hartu behar da botere publikoen eta lan-merkatuan esku hartzen duten eragileen erantzukizuna dela –bereziki, enpresena– gazteen enplegagarritasuna hobetzeko jardunak diseinatzea eta bultzatzen laguntzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Europako Enplegu Estrategiaren alde dihardu, eta nazioartekotzearen aldeko apustua egin du. Horrela, 2014-2016rako Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Planaren esparruan (euskal gazteen laneratzea eta enplegua bultzatzea du helburuetako bat) eta 2013-2016rako Lanbideren Plan Estrategikoaren esparruan (pertsonentzako enplegu-aukerak hobetzea da horren helburuetako bat), komenigarria deritzo aipatutako printzipioekin bat datorren laguntza-programa bat bultzatzea gazteak kontratatzeko. Horren ondorioz, titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak kontratatzeko egiten da deialdi hau. Praktikaldiko lan-kontratua izango da, eta gazteek laneko zereginak beteko dituzte denbora luzez euskal enpresen kanpoko lantokietan. Neurri horrekin, gazteek beren gaitasuna garatzea bultzatu nahi da, bai eta gazte horiek laneratzea ere. Beraz, programa honen azken helburua da egungo egora ekonomikoak gogor zigortutako euskal gizartearen parte horren lan-aukerak hobetzea eta bultzatzea, eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta lan-merkatuaren kalitatea hobetzen laguntzea.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2014ko uztailaren 10ean egindako batzarrean gazte langabeak euskal enpresen kanpoko lantokietan praktiketan kontratatzeko laguntzen deialdia onartu zuen. Hona hemen:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak euskal enpresek praktiketan kontratatzeko oinarriak ezartzea eta horretara bideratutako laguntzak arautzea (4. artikuluan xedatu da zein enpresa izan daitezkeen laguntzen onuradunak). Izan ere, kontratazio horien bidez, gazteek lan-esperientzia hartzea eta laneratzeko aukera handiagoak izatea bultzatu nahi da.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta Europako Gizarte Funtsaren baterako finantziazioa.

1.– Deialdi honek arautzen dituen laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 3.050.000 eurokoa da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuaren baitan. Horietatik,

2014. urteko aurrekontu arruntean sartuko dira 2.440.000 euro, eta 2015erako konpromiso-aurrekontuan sartuko dira beste 610.000 euro.

2.– Europako Gizarte Funtsak parte hartu ahal izango du deialdi honen baitan diruz lagundutako kontratuak finantzatzen, EAEko 2007-2013 EGIF Programa Operatiboaren barruan.

3.– Emango diren laguntzen bolumen osoak ez du adierazitako diru-zenbateko hori gainditu ko, ez eta hari egindako gehikuntzen ondorioz dagokion diru-zenbatekoa ere, baldin eta aurrekontuari aldaketaren bat egiten bazaio indarreko legediak araututako moduan. Azken kasu hori gertatzen bada, argitara eman beharko da gehikuntza hori, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Deialdi honen baitan diruz lagundu ahal izango dira praktikaldiko lan-kontratuak, gutxienez 12 hilabeteko iraupenekoak, baldin eta EAEn finkatutako enpresek Espainiatik kanpo dituzten lantokietako lanpostuak betetzeko badira, eta kontratua hasten den egunean 34 urte edo gutxiago dituzten gazteak kontratatzen badira.

Praktikaldiko lan-kontratuaren iraupena guztira zenbatekoa den alde batera utzita, diruz lagundutako aldia 12 hilabetekoa izango da gehienez, eta 2015eko urriaren 31n amaituko da beranduenez.

Diruz lagundutako praktikaldiko lan-kontratuek euskal enpresa baten kanpoko lantokian gutxienez bederatzi hilabetean aritzea bermatuko dute. Enpresa kontratugileak helmugako herrialdean dagokion administrazio-baimena lortzeko zailtasunak dituela egiaztatzen badu, egonaldia 7 hilabetera murriztu ahal izango da.

2.– Deialdi honen baitan praktikaldiko lan-kontratuetarako laguntza jasotzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Deialdiaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera onuradun izan daitezkeen enpresek kontratatu behar dituzte gazteak.

b) Kontratatutako pertsonek Espainiatik kanpoko lantokietan jardungo dute lanean, aurreko 1. paragrafoan xedatutako denboraz.

c) Kontratatutako pertsonaren prestakuntza akademiko-profesionalarekin bat datozen lanpostuak betetzeko izango dira kontratuak.

d) Kontratuak idatziz formalizatu beharko dira, eta berariaz aipatu beharko dituzte honako hauek: langilearen titulua, kontratuaren iraupena eta zein lanpostutan jardungo duen.

e) Kontratuak lanaldi osorako izango dira.

f) Kontratuaren gutxieneko iraupena 12 hilabetekoa izango da.

g) Urteko ordainsari gordina zenbatekoa den jaso beharko da kontratuan.

h) Kontratuan jaso beharko da enpresa behartuta dagoela kontratatuari diruz lagundutako 12 hilabeteetan zehar atzerrian egiten duen egonaldi horretan hilean 350 euro ordaintzera, mantenu- eta ostatu-gastuetarako; horrez gainera, kontzeptu berberengatik enpresako edo sektoreko hitzarmenean xedatutakoarekin bat datorrena ere jaso ahal izango du.

i) Arduradun bat izendatu beharko da, kontratatuak lanpostuan egiten duen lanaren gaineko jarraipena egiteko.

j) Edonola ere, praktikaldiko kontratuak bat etorri beharko du Langileen Estatutuaren 11.1 artikuluarekin eta estatutu hori garatzen duen martxoaren 27ko 488/1998 Errege Dekretuarekin.

3.– Ez da diruz lagunduko honako hauek kontratatzea: ez enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duenaren ezkontidea, oinordekoak eta gainerako senideak, bigarren mailara arteko odol- edo ezkontza-ahaidetasuna arte, ezta sozietate izaera juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetakoena edo zuzendaritzako kideena ere; eta azken horiek kontratatzea ere ez da lagunduko diruz.

4. artikulua.– Enpresa onuradunak.

1.– Deialdi honetan, diruz lagundu ahal izango dira EAEn kokatutako enpresa pribatuak edo publiko-pribatuak, baldin eta kanpoan lantokiak, partaidetutako enpresak edo enpresa-talde bereko beste enpresa batzuk badituzte, edo baldin eta kanpoan kokaturiko enpresekin lankidetza-hitzarmenak edo zerbitzu emateko kontratuak badituzte, edo baldin eta kanpoan ezartzeko prozesuetan badaude, hala dela behar bezala egiaztatuz gero, eta guztiek ere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Helbide soziala edo fiskala EAEn izatea edo lan-zentroa EAEn egotea.

b) Administrazio publiko batek edo gehiagok % 50eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa ez izatea.

c) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan eguneratuta egotea.

Diru-laguntzak eskatzen dituzten enpresek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluak xedatzen duenari jarraikiz.

d) Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

e) Enpresa kontratatzaileak egiztatzea kontratazioaren eta deialdi honetako diru-laguntzen xede den lanpostua dela-eta ez dela enplegurik suntsitu, kontratazio berria egin baino urtebete lehenagotik eta diruz lagundutako kontratazioak dirauen aldian.

f) Enpresako Langileen Legezko Ordezkaritzari (LLO) praktikaldiko kontratu bidez kontratatzeko asmoaren berri ematea, bete beharreko lanpostua eta kontratazioaldia adierazita. Enpresak LLOrik ez badu, horixe adierazi beharko du eskabidearekin batera, idatziz.

g) Laguntza ez-legezko edo ez-bateragarririk jaso ez izana, Estatuko laguntza-erregimen hauetako batetik: Araba I, Araba II eta Araba III (CR 48/99, CR 49/99 eta CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II eta Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 eta CR 59/00); eta Bizkaia I, Bizkaia II, Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 eta CR 60/00), salbu eta itzuli egin badituzte edo kontu blokeatu batean gordailatu badituzte interes eta guzti.

2.– Enpresei diru-laguntzak onartzeko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze- edo zigor-prozedura guztiak amaituta egotea.

5. artikulua.– Deialdi honen baitan praktiketan kontratatuko diren gazteen betekizunak.

34 urte edo gutxiago dituzten gazteak kontratatzeko da deialdia hau, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan izatea bizilekua.

b) Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea. Honako hauek barnean direla joko da: beste enpresa batean aldi baterako kontratuak dituzten lan-eskatzaileak, baldin eta % 33ko edo hortik beherako lanaldia badute, eta beren kualifikazioari dagokion maila baino bi maila beheragoko lanpostuetan badihardute.

Betekizun hori betetzen dela joko da, baldin eta langilearen titulazioari dagokion maila baino bi maila beheragoko kotizazio-taldeetan egiten bada Gizarte Segurantzako kotizazioa.

c) Honako multzo hauetakoren batean zehaztutako titulu bat izatea:

1. multzoa:

– Unibertsitateko lizentziatua, ingeniaria, arkitektoa.

– Unibertsitateko diplomatua, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa.

2. multzoa:

– Lanbide Heziketa arautuko eta berariazko lanbide-heziketako goi-mailako edo erdi-mailako teknikaria; teknikari laguntzailearen (LH1) eta teknikari espezialistaren (LH2) tituluak horien baliokideak izango dira.

– Ofizialki aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulu batzuk.

– Profesionaltasun-ziurtagiria.

d) Bi urte igaro ez izana, ikasketak bukatu zirenetik edo, atzerrian lortutako tituluak badira, Espainian ikasketak baliozkotu zirenetik; eta desgaitasunen bat duen gazte bat kontratu behar denean, zazpi urte igaro ez izana. Hogeita hamar urtetik beherako gazteei egiten zaizkien kontratuetan ez dira aplikatuko muga horiek, otsailaren 22ko 4/2013 Errege Lege-dekretuak –ekintzaileei laguntzeko eta enpleguaren sorrera eta hazkundea suspertzeko neurriei buruzkoak– 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

e) Helmugako herrialdeko lantokian lana egoki egiteko behar diren hizkuntza-gaitasunak izatea. Enpresak zehaztuko du zein diren hizkuntza-gaitasun horiek, eta titulu bidez edo maila jakiteko proba baten bidez egiaztatu beharko dira.

f) Bete beharreko lanpostuari dagokion kotizazio-taldeko lanpostuetan ez izatea 6 hilabetetik gorako lan-esperientziarik.

6. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Praktikaldiko zenbat kontratu egiten diren, horrexek zehaztuko du diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa. Honako zenbateko hauek batuz zehaztuko da praktikaldiko kontratua zenbat diruz lagunduko den:

a) Soldata-kostua eta Gizarte Segurantzakoa, kontratuaren indarraldiko lehen 12 hilabeteetakoak, eta gehienez ere 2015eko urriaren 31ra artekoak, betiere eskabidean jasotako datuekin bat etorriz.

Edonola ere, praktikaldiko lan-kontratu bakoitzeko diruz lagun daitekeen urteko gehieneko zenbatekoa hau izango da: deialdi honetako I. eranskinean prestakuntza-maila eta herrialde bakoitzerako ezarritakoak.

Nolanahi ere, diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu egindako kontratazio bakoitzaren egiazko kostua, kontratatutako pertsonen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak kontuan hartuta. Gainditzen badu, kostu errealeraino murriztuko da diru-laguntza.

b) Kontratatutako gazteen mantenu- eta ostatu-dietengatiko 350 euro, aplikatzekoa den hitzarmenetik aparte enpresak ordainduko dituenak. Atzerrian, diruz lagundutako egonaldian, pertsona gazteak ematen dituen hilabeteetako gastuak estaltzeko da kopuru hori, eta, bestalde, diruz laguntzen den epealdian sortuko da kopuru hori kobratzeko eskubidea.

c) Bisa edo administrazio-baimena lortzeko kudeaketa- eta eskurapen-gastuen ondoriozko gastuak, eta, beharrezko ikusten denetan, mediku-aseguru osagarri bat kontratatzeko gastuak. Kontzeptu horiek direla-eta, kontratatutako pertsona bakoitzeko diruz lagunduko den zenbatekoa 450 eurokoa izango da gehienez.

7. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira (II. eranskina), eta honako toki hauetan eskuratu ahal izango da hori: http://lanbide.net web-orrian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lurraldeetako enplegu-bulegoetan.

Horrez gainera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

2.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabidea sinatzen duenaren NANaren fotokopia, edo haren nortasun-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena; eta pertsona juridiko eskatzailearen ordez beste batek sinatzen badu eskabidea, sinatzen duen pertsona horren legezko ordezkaritzaren egiaztagiria.

b) Enpresaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

c) Enpresaren eratze-eskrituren fotokopia.

d) Kanpoko lantokiarekin enpresa eskatzaileak duen erlazioa egiaztatzeko dokumentazioa. EAEko hizkuntza ofizialetariko batean aurkeztu beharko da dokumentazio hori.

e) Langileen Legezko Ordezkaritzari (LLO) egindako jakinarazpena, eta, LLOrik ez bada, enpresan LLOrik ez dela dioen adierazpena.

f) Enpresaren legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitorpena, adieraziz kontratazioaren eta deialdi honetako diru-laguntzen xede den lanpostua dela-eta ez dela enplegurik suntsitu, kontratazio berria egin baino urtebete lehenagotik eta diruz-lagundutako kontratazioak dirauen aldian.

g) Uneko ekitaldian zehar eta aurreko bietan jasotako «minimis» laguntzei buruzko aitorpena, enpresa eskatzaileak egina, deialdi honetako 19. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3.– Horrez gainera, ondoren zehaztutako elementu hauek jasotzen dituen deskribapen-txostena izan beharko du eskabideak:

a) Diru-laguntza jaso nahi duen enpresaren deskribapen-memoria. Gutxienez honako hauek zehaztuko dira bertan:

EAEko enpresa eskatzailearen deskribapena: enpresaren jarduera, zein sektoretakoa den, plantilla, kanpoko lantokiak eta horien kokalekuak, zein merkatutarako diharduen (bezeroen tipologia, jardueraren eremu geografikoa) eta nazioartekotze-plana. Horrez gainera, eta halakorik bada, kanpoan kokatutako enpresekin egindako kontratuak –zerbitzuak emateko direnak– edo haiekin egindako lankidetza-hitzarmenak, edota kanpoan ezartzeko prozesuan dagoela dioen egiaztagiria.

Nazioartekotze-planaren esparruan, edo kanpoan kokatutako enpresekin zerbitzuak emateko egindako kontratuen esparruan edota haiekiko lankidetza-hitzarmenen esparruan egingo diren kontratazioei buruzko justifikazioa, diruz lagundutako epealdiaren ondoren kontratazioak finkatzearen bideragarritasuna ondo zehaztuta.

Kanpoko lantokiaren deskribapena: jarduera, sektorea, plantilla, kokapena, zein merkatutarako diharduen (bezeroen tipologia, jardueraren eremu geografikoa), hazkunde-aurreikuspenak.

b) Kontratazio-plana; hauek zehaztuko dira, gutxienez:

Zer-nolako lotura duen planak, enpresaren nazioartekotze-prozesuarekin.

Kanpoan praktikaldiko kontratuen bidez beteko diren lanpostuei buruzko aurreikuspena, honako hauek zehaztuta: lanpostuak, zenbat pertsona kontratatuko diren, arloak, eta funtzioak eta zereginak.

Lanpostuak betetzeko behar diren titulazioak eta profilak, kontuan izanik bete beharreko funtzioen eta eskatutako titulazioaren arteko koherentzia, eta lanpostuan jarduteko zein hizkuntza behar den/diren zehaztuta, bai eta zer maila eskatzen den ere.

Kontratuak zenbat irautea aurreikusten den, eta hura gerora finkatzeko zer aurreikuspen dauden.

Helmugako herrialdea eta enpresa edo lantokia.

Langileak urtean jasoko duen ordainsari gordina.

Mediku-aseguru osagarrirako –halakorik eginez gero– eta dagokion bisa edo administrazio-baimena lortzeko izango diren gastuen aurreikuspena.

Nork izango duen kanpoko egonaldian kontratatutako pertsonaren jarraipena egiteko ardura EAEko lantokian, 13.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Pertsona kontratatuaren esku ipiniko diren baliabide osagarriei buruzko deskribapen zehatza: joan-etorriak, ostatuaren gainekoa kudeatzeko laguntza, beste pizgarri batzuk.

c) Eskatutako diru-laguntza, kontzeptuka xehatuta: kontratatutako pertsonen soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak, mantenu- eta ostatu-dietak, mediku-asegurua kontratatzearen ondoriozko gastuak, eta dagokion bisa edo administrazio-baimena kudeatzearen ondoriozkoak.

4.– Eskabideak guztiz beteta ez badaude, edo 2. eta 3. idatzi-zatietan adierazitako derrigorrezko agiriak aurkezten ez badira, erakunde interesdunari 10 eguneko epearen barruan okerra konpon dezan edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio; eta, hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

5.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2014ko irailaren 30ean amaituko da.

8. artikulua.– Ebazpena emateko prozedura, emate-prozedura eta ebazpena.

1.– Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritzak du prozedura izapidetzeko eskumena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, berriz, ebaztekoa.

2.– Eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta deialdiko baldintzak eta betekizunak betetzen dituzten guztiei hurrenkera horretan emango zaizkie diru-laguntzak, harik eta finantzaketarako funtsak amaitu arte. Kreditua zabaltzen ez bada, behin aurrekontu-zuzkidura amaituta, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAAn argitaratuko da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3.– Eskabideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren esanbidezko ebazpen bidez onartu edo ukatuko dira. Ebazpenean, honako hauek jasoko dira: enpresa bakoitzari ematen zaion kontratazio-plana, ordaintzeko modua eta zenbatekoa, eta diru-laguntzaren justifikazioa.

4.– Eskabideak ebazteko eta jakinarazteko, gehienez sei hilabeteko epea izango da, eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita, eta epe hori amaitutakoan diru-laguntzaren eskabidea onartutzat hartuko da, baldin eta esanbidezko ebazpena ematen ez bada.

5.– Enpresa edo erakunde interesdunak 10 eguneko epea izango du, zuzendari nagusiaren ebazpena jakinarazten den unetik zenbatzen hasita, emandako diru-laguntza onartzen duela adierazteko. Epe hori amaitzean, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, eta artxibatu egingo da.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

7.– Publizitate-printzipioa betetzeko, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenaz honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, deialdi honen babesean diru-laguntza zein enpresak jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten, eta, bestetik, zein enpresari emandako diru-laguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, ebazpena berariaz eta banan-banan ere jakinaraziko da.

9. artikulua.– Programan parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozedura.

Praktikaldiko kontrataziorako hautagai diren gazteak hautatzeko prozeduran, honako hauek izan beharko dira kontuan:

1.– Enpresak, diru-laguntza onartzearenarekin batera, enplegu-eskaintza/eskaintzak ere aurkeztu beharko du/ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hautagaien lehen hautaketa egin beharko du, enplegu-eskatzaile gisa inskribatutakoen artean, kontuan hartuta onartutako kontratazio-planean aurreikusitako betekizun eta irizpide zehatzak bete behar dituztela enplegu-eskatzaileek.

3.– Eskaintza aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak zerrenda bat bidaliko dio enpresari, eskatutako lanpostu bakoitzeko hiru hautagai jasotzen dituena.

4.– Behin lehen hautaketa hori jasotakoan, enpresa onuradunak langileak hautatuko ditu. Horretarako, beharrezkoa bada, hautagaiak zer hizkuntza-maila duen eta lanpostuari egokitzen zaion ala ez aztertzeko egoki iritzitako probak egingo ditu enpresak. Behin langilea/langileak aukeratutakoan, enpresak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko dio nor kontratatu duen/dituen.

5.– Hamar eguneko epean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu aurkezten programan parte hartzeko pertsonarik, edo Lanbidek proposatutako pertsonek hautaketa-probak gainditzen ez badituzte, enpresak beste hautagai batzuk proposatu ahal izango ditu, eta organismo autonomo horri jakinarazi beharko dio parte hartzaile horiek nor diren, bai eta kontratazioak zein egunetan egitekoak diren ere. Gehienez ere 2 egun balioduneko epean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu beharko du ea proposatutako pertsonek betetzen dituzten bai deialdiko betekizunak bai onartutako kontratazio-planekoak; eta enpresari horren berri eman beharko dio.

10. artikulua.– Kontratatutako gazteak ordeztea.

1.– Behin kontratazioa egindakoan, honako kausaren bat dela-eta bakarrik ordeztu ahal izango du enpresak kontratatutako gaztea: probaldia ez gainditzeagatik lan-kontratua amaitzea, kontratatutakoak lana borondatez uztea, edo kontratatutako pertsonaren baliaezintasuna edo heriotza. Kontratatutako gazteak ordezteagatik ez da, inolaz ere, emandako diru-laguntza handituko.

2.– Kontratatutako gaztea ordezteko, enpresak horren berri eman beharko dio Lanbideri idatziz, eta beste hautagai bat kontratatu nahi duela ere jakinarazi beharko dio. Lehen batean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako lehen hautaketa-prozesukoa izan beharko du kontratatu berriak.

3.– Lehen prozesuko hautagaien artean hautaketa egitea ezinezkoa bada, beste hautaketa-prozesu bati ekingo zaio, 9. artikuluko 3., 4. eta 5. paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorriz. Gehienez ere 4 eguneko epea emango da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hautagaiak proposatu eta enpresak langileak aukeratzeko.

4.– Formalizatzen den lan-kontratu berriak deialdi honetako 3. artikuluan eskatutako betekizun guztiak bete beharko ditu.

11. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza honela ordainduko da:

– Emandako diru-laguntzaren % 80 emango da, enpresaren kontratazio-planean aurreikusitako kontratuak formalizatu ostean, eta horien fotokopiak eta senidetasunik ez izateari buruzko erantzukizunpeko aitorpena aurkeztutakoan –deialdi honetako 3.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz–, eta Lanbidek Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean langilearen alta egiaztatutakoan.

– Bigarren ordainketan, gainerako % 20a edo justifikazioaren ondorioz dagokion kopurua ordainduko da, diruz lagundutako aldia bukatutakoan eta behin diru-laguntzaren helburu diren jarduerak justifikatutakoan.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta epea.

Kontratuak amaitzen direnetik gehienez ere hilabeteko epean, edo, betiere, 2015eko azaroaren 30a baino lehen, enpresa onuradunak azken justifikazio-memoria aurkeztu beharko du, dokumentazio hau duela:

a) Praktikaldiko kontratuaren bidez kontratutako gazteen zerrenda, eta kontratu horien iraupena eta kostuak.

b) Diru-laguntza honetan oinarriturik kontratatutako langileen nominak, ostatu- eta mantenu-dietengatik ordaindutako zenbatekoak banakatuta dituztela. Nomina bakoitzari dagokion zenbatekoaren banku-transferentzia egin izana ere egiaztatu beharko du enpresak, agiri bidez.

c) Gizarte Segurantzarako kotizazioaren dokumentuak, eta ordaindu izana egiaztatzeko agiriak.

d) Mediku-aseguru osagarria kontratatzeak eta dagokion bisa edo administrazio-baimena lortzeko egindako izapideek berekin ekarritako gastuen fakturak, eta ordaindu izanaren egiaztagiriak.

13. artikulua.– Enpresa onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunaren betebehar izango dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatu beharko da bete direla diru-laguntza jasotzeko betebeharrak eta baldintzak.

c) Honako hauen egiaztatze-jarduketei baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomi Kontrolerako Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-instantziak.

Diruz lagun daitezkeen gastuek Europako Gizarte Funtsaren hautagarritasun-betekizunak bete ditzaten, gastu guztien fakturak, nominak edo froga-balio bera duten dokumentuak aurkeztu beharko dira, bai eta dagozkien ordainagiriak ere. Era berean, gastuaren kontabilitate-erregistroa egin beharko da, kontabilitate-kode bereizi eta egoki baten bitartez.

d) Helburu berberarekin beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

e) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa edo subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.

f) Diruz lagundutako jardueren xedean edo izaeran nabarmen eragiten duen ezer gertatuz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari; era berean, jarduera horiek egiaztatzeko eta kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko prozeduretan laguntzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduraren bat izapidetzen ari bada, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

h) Erakunde onuradunek espresuki adieraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jaso dutela deialdi honen esparruan finantzatutako jarduera guztietan, horiek hedatzean, edo, hala badagokio, argitaratzean.

i) Laguntza horiek aditzera emateko ekintza eta material guztietan, aipatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Europako Gizarte Funtsaren artean finantzatu direla laguntzak, EAEko 2007-2013 EGIF Programa Operatiboaren barruan.

2.– Orobat, diru-laguntza jasotzen duten enpresen betebeharrak dira honako hauek ere:

– Kontratatutako gazteari bere lanpostuan egiten duen lanaren jarraipena egiteko arduradun bat ipintzea, kontratua amaitzean gaitasunetan zer aurrerabide izan duen balora dadin, eta horrela, enplegu-politika aktiboen zerbitzurako tresnak izan daitezen, gaztearen enplegagarritasuna hobetze aldera.

– Kontratua amaitzean, enpresak ziurtagiri bat egin behar dio langileari. Hor, honako hauek jaso behar dira, gutxienez:

a) Praktikaldiko kontratuaren iraupena.

b) Betetako lanpostuak, eta bakoitzean egindako zeregin nagusiak.

14. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere esku izango du ikuskapen- eta kontrol-jarduerak egitea, deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko.

15. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako diru-laguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

16. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak honako hauekin: kontzeptu eta helburu berberetarako beste administrazio batzuek edo beste erakunde pribatu edo publiko batzuek emandako diru-laguntzak, laguntzak eta diru-sarrerak. Bateragarriak dira, ordea, praktikaldiko kontratuetan Gizarte Segurantzako kuotetan egin daitezkeen hobariekin, baina halakorik izanez gero, emandako diru-laguntzatik kenduko dira zenbateko horiek, azken justifikazioa egin ondoren.

17. artikulua.– Ez betetzeak eta emandako diru-laguntzak itzultzea.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako laguntza jaso duten erakundeak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude, edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du; ebazpen horren bitartez, jasotako kopuruak osorik edo zati batean itzuli behar dituztela adieraziko du, eta kopuru horiei

diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrerako legezko interesak erantsi beharko zaizkie, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, hala xedatuta baitago abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntza jaso duen erakundeari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, egokitzat jotako alegazioak edo egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio. Prozedura hori hasten denean, eten egingo dira egiteko dauden ordainketak, halakorik egonez gero.

3.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo onartu ez badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea gehienez 12 hilabetekoa izango da.

4.– Ebazpenak arauren bat bete gabe utzi dela iritziz gero, eta diru-laguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat ematen badu, interesdunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

5.– Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, itzuli beharrekoak premiamendu bidez berreskuratzeko izapideak hasiko dira.

18. artikulua.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betetzearen ondorioz lortutako datu pertsonalak bere titulartasuneko fitxategi batean sartuko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Fitxategi hori, «Enplegurako eta prestakuntzarako diru-laguntzak» izenekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoak datu pertsonalak biltzeko dauzkan fitxategiak arautzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 10eko Aginduaren bidez dago araututa.

Halaber, pertsona interesdunek datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak izango dituzte, legeak onartzen duen eran; horretarako, hori adierazten duen idazki bat igorri beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 01009 Gasteiz).

19. artikulua.– Eskumenari buruzko Europako araudia.

1.– Deialdi honetan zehaztutako laguntzek bat etorri beharko dute Europar Batasunaren «minimis» laguntzen funtzionamendu itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruz Batzordeak 2013ko abenduaren 18an egindako 1407/2013 (EE) Erregelamenduarekin (DOUE L352, 2013-12-24). Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakarrari «minimis» erako laguntzetan emandako zenbatekoak ezin izango du gainditu 200.000 euroko kopurua hiru ekitaldi fiskalen barruan.

Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen den «enpresa bakarra» Erregelamendu horren 2.2 artikuluan.

2.– Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitorpena egin beharko du laguntza-eskatzen duenak, honako hau frogatzeko: minimis laguntza berriarekin ez dela gainditzen Erregelamenduan ezarritako muga maximoa.

I. ERANSKINA

Soldata-kostuengatiko eta Gizarte Segurantzako kostuengatiko urteko gehieneko dotazioak.

Herrialdea urteko dotazioa	
1. taldea	
Alemania	22.120
Austria	23.240
Argentina	19.180
Australia	24.220
Belgika	23.660
Brasil	22.400
Kanada	21.840
Txile	19.180
Txina	23.380
Danimarka	25.200
AEB	22.260
Egipto	19.180
Finlandia	25.200
Frantzia	24.360
Grezia	18.620
Herbehereak	22.820
Hungaria	19.180
India	20.440
Indonesia	19.180
Irlanda	24.640
Italia	22.260
Japonia	23.940
Maroko	19.180
Mexiko	19.880
Norvegia	25.200
Polonia	19.180
Portugal	19.180
Erresuma Batua	24.640
Txekiar Errepublika	19.180
Errumania	19.180
Errusia	23.660
Hegoafrika	21.840
Suitza	25.200
Suedia	25.060
Turkia	20.440
Ukraina	19.180

Herrialdea urteko dotazioa	
2. taldea	
Alemania	18.802
Austria	19.754
Argentina	16.310
Australia	20.594
Belgika	20.118
Brasil	19.040
Kanada	18.564
Txile	16.310
Txina	19.880
Danimarka	21.420
AEB	18.928
Egipto	16.310
Finlandia	21.420
Frantzia	20.706
Grezia	15.834
Herbehereak	19.404
Hungaria	16.310
India	17.374
Indonesia	16.310
Irlanda	20.944
Italia	18.928
Japonia	20.356
Maroko	16.310
Mexiko	16.898
Norvegia	21.420
Polonia	16.310
Portugal	16.310
Erresuma Batua	20.944
Txekiar Errepublika	16.310
Errumania	16.310
Errusia	20.118
Hegoafrika	18.564
Suitza	21.420
Suedia	21.308
Turkia	17.374
Ukraina	16.310

Eranskinean ageri ez diren herrialdeentzat, dotazioa dagokion kontinenteko herrialdeen dotazioen batez bestekoa izango da.

1. taldea
Lizentziatua, ingeniaria, arkitektoa.
Unibertsitateko diplomatua, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa.

2. taldea
Lanbide Heziketa arautuko eta berariazko lanbide-heziketako erdi- edo goi-mailako teknikaria; teknikari laguntzailearen (LH1) eta teknikari espezialistaren (LH2) tituluak horien baliokideak izango dira.
Ofizialki, aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.
Profesionaltasun-ziurtagiria.

ERANSKINA

GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESEN KANPOKO LANTOKIETAN PRAKTIKETAN KONTRATATZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

URTEA:	2014

ERAKUNDE ESKATZAILEA:	

SARRERA ERREGISTROA

LURRALDE HISTORIKOA		
ARABA	*01*	
GIPUZKOA	*20*	
BIZKAIA	*48*	

LANBIDEK BETETZEKOA

2	0	1	4	C	LI:	E						

URTEA *ESPEDIENTE ZK.*

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta 2014ko irailaren 30ean amaituko da.

JARRAIBIDEAK

Eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Jose Atxotegi, 1 – 01009 Vitoria-Gasteiz) edo Lanbideren enpleguko lurralde-bulegoetan aurkeztu beharko dira.

Horretaz gain, eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira.

Eskaera formatu digitalean bete behar da, eta lauki bakoitzean zenbaki edo letra bat jarri behar da.

Ez dira onartuko datarik gabe nahiz eskatzailearen izenperik gabe aurkezten diren eskaera-orriak. Eskaerarekin batera orri-sorta honen amaieran adierazten diren agiriak ere aurkeztu behar dira.

DATU PERTSONALAK JASOTZEARI ETA ERABILTZEARI BURUZKO SEGURTASUN POLITIKAREN ONARPENA

Eman dizkiguzun datu pertsonalak «Enplegu eta prestakuntzako diru-laguntzak» izeneko fitxategi automatizatuan sartuko ditugu; fitxategiaren kudeatzailea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da. Aldez aurretik, fitxategi horren berri eman zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, hark baitauzka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak.

Zure datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko aukera ere egongo da, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Lege horrek gaitutako kasuetan.

Orobat, erakunde eskatzaileak agiri hau sinatzean honako hau bermatzen du: jasotako datu pertsonalen titularrei (betiere, haien titulartasuna duten fitxategietan sartutako datuez ari gara) Datuen Babesari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoaren berri eman zaie aldez aurretik, eta guztiek berariaz eman dute oniritzia.

Bestalde, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak betez, baduzu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duenez; horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura jo dezakezu (Jose Atxotegi, 1 – 01009 Vitoria-Gasteiz).

1.– ENPRESA ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Sozietatearen izena			
IFZ / NAN:		JESN:	
Web-orria			
Helbidea:			
PK:		Herria:	

LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK			
Izena:		Abizenak:	
NAN:		Kargua:	
Telefono-zenbakia(k):			
E-posta:			

HARREMANETAN JARTZEKO			
Izena:		Abizenak:	
Kargua:			
Telefono-zenbakia(k):			
E-posta:			

ESKAERAREN LABURPENA	
Kontratazio-kopuru honetarako eskatu da laguntza:	
Eskatutako diru-laguntza guztira:	

Eskaera hau oso-osorik bete, eta eranskin honen bukaeran aipatzen diren agiriekin batera aurkeztu behar da. Horrela egin ezean, falta diren agiriak eskatuko dira, eta, 10 eguneko epean aurkezten ez baditu eskatzaileak, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, dagokion ebazpena eman ondoren.

.....n .....(e)ko .....aren .....(a)

_____

Legezko ordezkaria

Izenpea:

Izpta.: _____
(Idatzi izenpetzailaren izena)

_____

2.– KONTRATATU BEHARREKO LANPOSTUEN ESKAERA ZEHATZA

	1. LANPOSTUA	2. LANPOSTUA	3. LANPOSTUA	4. LANPOSTUA
Lanpostuaren izena:				
Helmugako herrialdea:				
Helmugako hiria:				
Departamentua:				
Lanpostuaren egitekoak:				
Eskatzen den titulazioa:				
Eskatutako hizkuntza/k MAILA: Oinarrizkoa-Tartekoa-Goi maila:				
Kontratua hasteko aurreikusitako data:				
Kontratua amaitzeko aurreikusitako data:				
Gizarte Segurantzako kotizazio-taldea (1):				
Sektoreko hitzarmen kolektiboa (Argitalpenaren data eta Aldizkaria adierazi):				

(1) Gizarte Segurantzako kotizazio-taldeak bat etorri behar du kontratutako pertsonari eskatutako titulazio-mailarekin / El grupo de cotización a Seguridad Social deberá ser acorde con el nivel de titulación requerido de la persona a contratar.

KONTRATU-KOSTUAK	1. LANPOSTUA	2. LANPOSTUA	3. LANPOSTUA	4. LANPOSTUA
(A) Urteko soldata gordina + enpresaren GS:				
(B) Hitzarmenaren araberako dietak (hala badagokio):				
Kontratazioaren guztizko kostua: (A+B):				
ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA	1. LANPOSTUA	2. LANPOSTUA	3. LANPOSTUA	4. LANPOSTUA
(C) Urteko soldata gordina + enpresaren GS (eranskinaren arabera):				
(D) Ostatu- eta mantenu-gastuetarako dietak:				
(E) Baimenak eta osasun-aseguruak izapidetzea:				
Lanpostu bakoitzeko eskatutako zenbateko guztia (C+D+E):				
			ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA GUZTIRA:	

3.– ENPRESAREN DESKRIPZIO-MEMORIAREN EDUKIA

A) DIRU-LAGUNTZA JASOKO DUEN ENPRESAREN EDO ERAKUNDEAREN DESKRIPZIO-MEMORIA

1.– Eskaera egin duen enpresa EAEn:

- SEKTOREA
- JARDUERA (produktuen edo zerbitzuen deskripzioa).
- EHUNEKOA parte-hartze publikoa
- Enpresak EAEn duen LANGILE-KOPURUA (langileen eta/edo bazkideen kopurua).
- KANPOAN DITUEN LANTOKIAK (lantoki-kopurua, zein herrialdetan kokatuta):
    - MERKATU-mota
    - Bezero-tipologia
    - Jardueraren geografia-eremua.
- BARNERATZE-PLANA

2.– Kontratazio-justifikazioa.

3.– Kanpoan dauden lantokiak eta eskaera egin duen enpresaren arteko lotura:

- SEKTOREA .
- JARDUERA.
- Enpresan diharduen LANGILE-KOPURUA .
- EZAUGARRIAK:
    - Kokapena, herrialdea.
    - Merkatu-mota.
    - Bezero-tipologia.
- HAZKUNDE-AURREIKUSPENAK.

B) KONTRATAZIO-PLANA.

- LANPOSTUAK
    - Pertsona-kopurua.
    - Arloa/k.
    - Egitekoak eta zereginak.
- PROFILA
    - Titulazioa.
    - Hizkuntza (zehaztu maila).
- KONTRATAZIOA
    - Iraupena sendotzeko aurreikuspena.
    - Ordainsari gordina.
    - Helmugako enpresa eta herrialdea.
- JARRAIPEN-PLANA
    - Arduraduna (zehaztu kargua eta arloa)
    - Metodologia
- BALIABIDE OSAGARRIAK
    - Ostatu-kudeaketa
    - Joan-etorriak herrialdera
    - Osasun-estaldura osagarria
    - Eskatutako baimenak edo bisak.
    - Beste pizgarri batzuk.

4.– LEGEZKO ORDEZKARIAREN ERANTZUKIZUN-AITORPENAK

.....jaun/andreak, …… enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa, lehen aipatutako laguntza ESKATZEN du, eta beraziaz onartzen ditu diru-laguntza hori jasotzeko xedatutako baldintzak, euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazteak praktiketan kontratatze aldera bideratutako diru-laguntzen deialdian ezarritakoari jarraituz. Helburua hori izanik,

AITORTZEN DU:

Lehenengoa:

☐ Eskaera egin duen enpresaren kapitalaren % 50 baino gehiago ez dago, zuzenean edo zeharka, herri-administrazio baten edo batzuen esku.

Bigarrena:

☐ a) Ez dago laguntza itzularazteko edo zehapena jartzeko prozedurarik eskaera egin duen enpresaren aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko diru-laguntzaren edo laguntzaren baten ondorioz.

☐ b) Eskaera egin duen enpresak ez du diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarten zigor- zein administrazio-arloko zehapenik jaso, ez eta horretarako desgaitzen duen legezko debekurik ere, sexua dela-eta diskriminatzeagatikoak barne, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoa betez.

Hirugarrena:

☐ Eskaera egin duen enpresan ez da kontratatuko diren lanpostuetan eta diru-laguntzaren eskaeraren xede diren lanpostuetan enplegurik suntsitu kontratazio berriak egin baino urtebete lehenago, eta ez da suntsituko diruz lagundutako kontratazioak/ek irauten duen/duten bitartean.

Laugarrena:

☐ a) Eskaera egin duen enpresak Langileen Legezko Ordezkaritzari jakinarazi dio gazteak praktiketan kontratatzera bideratutako deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa duela, bai eta zer lanpostutan eta zenbateko epean arituko diren ere.

☐ b) Enpresak ez du oraingoz Langileen Legezko Ordezkaritzarik, eta horregatik ez diola jakinarazi deialdi honen esparruan egingo dituen kontratazioei buruzko informazioa.

Bosgarrena:

☐ a) Eskaera egin duen enpresa ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin herri-administrazioen eskutik.

☐ b) Eskaera egin duen enpresari …….....…… euroko diru-laguntza eman dio …….. (e)k (*)

☐ c) ……..……(r)i (*) laguntza eskatu diogu, eta ebazpenaren zain dago.

(*) Erakundearen/Enpresaren izena adierazi.

Seigarrena:

Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuari baimena ematen dio nortasun agiriari buruzko datuak elektronikoki egiaztatzeko.

☐ Bai ☐ Ez

(Baimena ematen ez bada, legezko ordezkariaren NANren kopia erantsi behar da).

Zazpigarrena:

Minimis laguntzen araudian ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko, eta bereziki kontuan izanda enpresa bakartzat zer hartzen den araudi horretako 2.2 artikuluan:

☐ a. Ez du minimis laguntzen erregimeneko laguntzarik jaso azken hiru urteetan.

☐ b. Minimis laguntzen erregimeneko laguntza hauek eskatu eta/edo jaso ditu (zerga-ekitaldi horretan zein aurreko bi zerga-ekitaldietan), Ituneko 87. eta 88. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2006ko abenduaren 15eko Batzordearen 1998/2006/EE Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

Eskatutako diru-laguntza kopurua:

Laguntzaren egoera (*)	Erakunde emailea	Laguntzaren xedeari buruzko deskripzioa	Laguntzaren zenbatekoa (euro)	Data (eskaera egin edo eman zenekoa)

(*) ES= Laguntza eskatu EM= Laguntza eman

Zortzigarrena:

☐ Ez du jaso estatu-mailako laguntza-erregimenen barruan legez kontrako edo bateraezintzat jo diren laguntza hauetako bat: Araba I, Araba II eta Araba III (CR 48/99, CR 49/99 eta CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II eta Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 eta CR 59/00) eta Bizkaia I, Bizkaia II, Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 eta CR 60/00); beraz, ez du kontu blokeatu batera bueltatu edo sartu behar izan ez laguntza ez zegokion interesa.

Bederatzigarrena:

☐ Eskaera honetan jaso diren datuak egiazkoak dira.

.....(e)n, 2013ko .....(a)ren .....-(e)an

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren zigilua:

Izpta.: _____
(Idatzi izenpetzailearen izena)

5.– ESKAERAREKIN BATERA DERRIGORREAN BIDALI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Diru-laguntza eskaerako atal guztiak behar bezala bete behar dira, eta, horrez gain, agiri hauek ere erantsi behar dira:

I.– ADMINISTRAZIO-ALORREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA:

– Legezko ordezkariaren NANren fotokopia edo datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.

– Ordezkari dela egiaztatzen duen notario-ahalordearen fotokopia.

– Enpresaren identifikazio fiskalaren fotokopia.

– Enpresa eratu zeneko eskrituren kopia.

II.– POIEKTUARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA:

– Enpresaren eta kontratatuko den proiektuaren deskripzio-memoria; eskaeraren 2. eta 4. paragrafoetan zehaztutako informazio guztia jaso behar da bertan. Horrez gain, nahi izanez gero, egokitzat jotako dokumentazio gehigarri guztia aurkeztu ahal izango du enpresak.

– Eskaera egin duen enpresaren eta kanpoan kokatuta dituen/dituzten lantokiaren/lantokien arteko lotura egiaztatzeko dokumentazioa edo kanpoan ezarpen-prozesuan egotearen justifikazioa. Dokumentazioa EAEko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu behar da.

– Langileen Legezko Ordezkaritzari egindako jakinarazpenaren kopia.